

A la Seráfica Provincia de Cantabria en el septuagésimo quinto año de su Restauración delako liburuak dakarrenez. Laster argitaratzekotan daukadan Elgetako monografian ematen dut Aita Frai Jose Antonio Ugarteren berri.

(3) *Misio Santubetaraco Jesus gure Jaunari eta Ama Birjiñari cantubac.* Tolosan: Pedro Gurruchaga-ren Alargun eta Semeen moldiztegia. 1893garren urtean. 10 × 15 zm., 32 orr., eta beste 4 orr. musikaz.

(4) *Maria Becaturic gabe contzabituari.* Tolosa, 1904.

(5) G. de Sorarrain, *Catálogo de obras eúskaras.* Barcelona, 1891. 411 orr., 1206 ref.

(6) 1921eko argitalpenean. Lehen edizioa 1885ean izan zuen.

(7) A. Onaindia, *Milla Euskal-olerki eder.* Larrea-Amorebieta, 1954.

(8) A. Onaindia, *Euskal Literatura*, III, 256/258 orr. B. Estornés Lasak ere aipamena egiten dio *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco*, vol. II, *Literatura*, 194 orr.

(9) J. Bilbao, *Eusko Bibliographia*, IV, 422. Donostia, 1974.

(10) J. Bilbaoren obra berean, 423 orr., "Billa joan eta gabe etorri" izenekoa aipatzen du.

(11) Baudran-en aipatutako itzulpenean, *Zeruko Argiya edo! ondo pentsatu!*, 1921eko edizioan.

(12) *Urruzuno'tar P. M. en ipuiak.* Neketako Ama-Birjiñaren irarkolan. Iruña'n, 1930. 5/6 orr.

(13) *El Libro de la Virgen.* Antología Mariana Hispana e Iberoamericana de poesía y de pintura: Poesías castellanas, catalanas, gallegas, vascas y portuguesas. Madrid, 1963. Aita Onaindiak aipatzen du, *Euskal Literatura*, II, 103 orr.

(14) R. M. Azkue, *Cancionero popular vasco*, 135, 195, 463, 504 eta 887garren kantak.

(15) R. M. Azkue, *Euskalerrriaren Yakintza*, II, 6 eta 130garren ipuiak, 30 eta 356garren orrialdeetan.

MUSIKA GAIETAZKO HIZTEGI BATI BURUZ

Xabier Gereño

Euskal hiztegiak duen huts nabarmen bat betetzen lagun diezazuegun dei egitera natorkizue gaur.

Euskal Herriko Txistularien Elkarteak, zeinen Juntakoa baitnaiz, aspaldidanik ikusi du txistua jotzen ikasteko euskal

ikasbide baten falta, dauden guztiak gaztelaniaz idatziak direlako. Hainbat tokietatik eta ikastoletatik bereziki euskal ikasbideen eskea gehituz doa eta egoera honi aurpegia eman nahirik liburu bat prestatzea erabaki dugu.

Euskal kulturaren musikak duen garrantzia nabarmena da guztiontzat, baina musikak eta euskarak duten lotura bakarra milaka abestien hitzetan datza, zeren musikaren inguruan egin ditugun azterketak, orain arte bederen, gaztelaniaz idatziak izan baitira.

Bizkaiko Aurrezki Kutzak ehun mila pezeta eskaini digu liburua egiteko eta diru honekin 24 horrialdeko 10.000 ale inprimatuko dira dohan zabaltzeko. Guk nahigo genuke euskara hutsean egitea, baina Aurrezki horrek eskatu digu hizkuntza bitan argitaratzea, hau da, euskaraz eta gaztelaniaz. Honekin ba dakigu zeren arriskua legoke: ohitura gehiago edukiz, irakurlea erdarara joatea. Beraz, eta hori gerta ez dadin, bata ez da bestearen itzulpena izango. Gaztelaniazko orijinala Boni Fernandez, Bilboko Txistu Bada Munizipalaren zuzendariak idatzi du, eta euskarazkoaren ardura nik hartu dut. Honez gainera, irudi guztiak euskal testoan joango dira, irakurlea harantz bultzatu nahiean.

Euskal testoa idazterakoan oztopo handi bat agertu zaigu: musik hiztegi baten falta. Lehenen, euskaraz zer zegoen idatzirik bilatu behar izan dugu, eta liburu bi bakar hauk daude:

“Solfaketa irakasbidea”, Iruretagoyena'tar Juan Jose-k idatzia eta Donostiako Casa Erviti-k 1968 urtean argitaratua.

“Aurrak, jo txistua”, Luis Elizalde-k idatzia eta Madrid-eko Publicaciones Claretianas-ek 1974 urtean argitaratua.

Lehen liburuaren testo idatzia oso laburra da, eta bigarrenarenak ez du testorik. Zergatik? Behar bada histegi hori ez dugulako.

Euskara subdesarroiho batetatik atera nahi dugun garai honetan ezin dezakegu gehiago permiti horrelako kondizionamendurik. Beraz, oztopoei aurpegia eman behar zaie eta hiztegi hori egin. Ba dakigu musik hiztegi oso bat egiteak denbora behar duela eta haugatik zatika egitea litzateke egokiena. Beraz, beharrezkoen iruditu zaigun zerrende bat prestatu dugu, gaztelaniaz, eta jaun hauengana jo dugu euskal itzulpe-

nen eske: Jose Luis Alvarez Enparantza, Xabier Kintana eta Luis Mitxelena euskaltzainak eta Jose Antonio Arana musikalaria. Erantzun ezberdinak eman dizkigute eta gu txistularion artean aztertu ondoren, orain eskainiko dizuegun zerrenda prestatu dugu, zuen eritzien eske gatozelarik.

Lehen zerrendan, gaztelanizko hitzak daude, bigarreanean jaun horiek eta Iñaki Arrarte txistulariak proposatu digutezak eta hirugarrenean guk hautatu ditugunak. Zuek esan, mesedez, hirugarren zerrenda honetako hitzak ongi aukeratuak ote dauden.

GAZTELANIAZ	PROPOSATU DIZKIGUTENAK	GUK AUKERATUAK
Do	Do	Do
Re	Re	Re
Mi	Mi	Mi
Fa	Fa	Fa
Sol	Sol	Sol
La	La	La
Si	Si	Si
becuadro	bekoadro, eslauki	bekoadro
tono	tonu, maila	tonu
semitono	tonuerdi	tonuerdi
escala diatónica	eskala diatonikoa	eskala diatonikoa
escala cromática	eskala kromatikoa	eskala kromatikoa
pentagrama	pentagrama, pentagramma, boslerro	pentagrama
línea	lerro	lerro
espacio	tarte	tarte
clave (de sol)	(sol) giltza	giltza
redonda	biribil, borobil	biribil
blanca	zuri	zuri
negra	beltz	beltz
corchea	kortxea, kalcodan	kortxea
semicorchea	kortxerdi	kortxerdi
fusa	fusa	fusa
semifusa	fuserdi	fuserdi
acompañamiento	laguntza	laguntza
partitura	partitura	partitura
sonar	soinu egin, ozendu, hots egin	soinu egin
sonido	soinu, ozen, hots	soinu
ensayo	saio	saio
armonizar	harmonizatu	harmonizatu
conjunto musical	musika taldea	musika taldea
ligadura	lotura	lotura

compás de compasillo	neurri laukoitz, lauko neurria laubeltza lanko	neurria
pita o boquilla	txistu mutur. Txistuchoa	txistu mutur
anilla (de txistu)	erhaztun, eraztun, ertun	erhaztun
(do) grave	beheko (do)	beheko (do)
agudo	goiko	goiko
ejercicios	ariketak	ariketak
método	ikasbide, irakasbide	ikasbide
puntillo	luzerdi, puntu, luzagavvi	puntu
acorde	adoski, akorde, ozendi	akorde
melodía	ahaire, melodia, doinu, (nagusia) eresi	doinu
(do) natural	berezko (do), (do) natural, (do) garbia	(do) natural
alteración	bezeketa, aldaketa	aldaketa
obra musical	musik obra, obra musikala, ereslan, musika lana	obra musikala/musik obra
calderón	eusteko marka, eutsibat egin	
fin	amai, azken, bukaera	
dos por cuatro	bi lauko, bi per lau, bibeltza	bi lauko
escala natural	berezko eskala, eskala natural eskala gaubia, eskala soila	eskala natural

Hau da, euskaltzain jaunak, aurkezten dizuegun zerrenda eta esan iezadazue, mesedez, orain hitzez eto aurrerago idatziz, zein den zuen eritzia, idazkiak helbide honetara bidaliz: Xabier Gereño - Av. Ejercito, 18, 3. eskuin - Bilbo-14. Ahal den arinen, mesedez.

Eta orain, lan hau bukatzeko, Euskaltzaindiak jadanik ezagutzen dituen beste zerrenda bat kopiatuko dut, Ikastola Hiztegietan zuek onhartua:

Gaztelaniaz

Solfeo
nota
compás
ritmo
unísono
sostenido

Euskaraz

Solfa
nota
neurri
erritmo
soinubat
sostengatu

bemol
tamboril
atabal
banda
concierto

bemol
danbolin
atabal
banda
kontzertu